

Ostirala, 2013/08/23

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun
data

2013

abuztua

22

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



Portuko jaiak ekitaldiz lepo, aurten ere: musika, jokoak, herri kirolak...

Bi nobedade dituzte aurten, Portuko jaiak: Kalez Kale Kantariko kideen emanaldia eta Paolla eta Azkonobietaren zaldien arteko dema. Musika ez da faltako, ez egunez, ez gauez. Eta txikieneke ere izango dute zerekin disfrutatu. Sagardo lehiaketak eta asto lasterketak erakarriko dute aurten ere, jendetza.

2013/08/23 - Ostirala

hiru egunez san joan txiki jaiak alaituko dituzte portuko kaleak eta bizilagunak, eta gerturatzea erabakitzen duten herritar guztiak. eguerdiko 12:00etan hasiko dira festak gaur eta igande gauera arte luzatuko dira. bi nobedaderekin datoz aurten, san joan txiki jaiak: batetik, kalez kale kantariko kideen emanaldia; eta bestetik zaldi dema paolla eta azkonobietaren zaldien artean. bi ekitaldi berriek ukitu berezia emango diete festei, baina urteroko ekintzarik ere, ez da faltako: asto lasterketa, sagardo dastaketa...

musikarekin lotura duten festak

egunez eta gauez, edozein momentutan du musikak tartea, portuko festetan. gaur azken orduan izango da kontzertua, hernaniko hiru talderen eskutik: dirty eyes, bh roja eta despervicio. kalez kale kantariko kideen emanaldia izango da, bihar, nobedadeetako bat. euskal abesti tradizionalak kantatu ohi ditu herritar talde honek, izenak berak dioen moduan, kalez kale. kasu honetan portuko plazan abestuko dute, eta nahi duten guztiek izango dute, beraiekin batera kantatzeko aukera. berezia izango da biharko emanaldia, eta ez portun estreinekoz abestuko dutelako, emanaldia gauez izango delako baizik. emanaldia bukatuta, euskal kantuek segida izango dute larunbatean. jarraian, beste talde hernaniar baten emanaldia izango da: laiotzena. moda modan dauden abestiak kantatzen dituzte; baina baita lehengoak ere, denen oroimenean geratu ziren haiek. festa giroa nahi duenak beraz, badu aukera, san joan txiki jaietan. txistularien dianak esnatuko ditu goiztiarrenak igandean, portun. 09:30etan hasiko dira ekitaldiz betetako eguna giroten. eguerdian, 12:00etan, bertso eskolako bertsolariekin tarte atsegina pasatzeko aukera izango da. eta musikak, iluntzean izango du jarraipena. dantzaldia antolatuta dute laketa taldearekin; 19:30ak aldera hasiko dira, eta gauerdia arte luzatu, festak bukatu arte, alegia.

lehiaketa eta txapelketak, egunero

portuko bizilagunek ez dute lehiaketarik behar, balkoiak apain-apain izateko. udaberria iritsi bezain pronto hasten da auzoa kolore eta usain atseginez betetzen.

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



IKUSI



san joan txiki festetan bizilagunen afizio hori saritu nahi dute, eta urtero, lorontzi polittenari ematen diote saria. auzotarrek 18:00etatik aurrera aterako dituzte lorontzi ederrenak kalera, eta epaileek ez dute lan erraza izango, irabazlea aukeratzen. eta lorontzi lehiaketa ez da san joan txiki jaietarako antolatu duten bakarra. bihar bertan, punteria onena dutenen arteko lehiak gozatzeko aukera izango da, tiro karabina txapelketarekin; eguerdiko 13:00ak inguruan hasiko da. arratsaldean berriz, muslariek dute zita, 16:00etan, shangay tabernan. azkenik, toka eta bote txapelketa igandean jokatu da. 39garren edizioa izango da aurtengoa, eta urte-roko zitan elkartuko dira auzoko eta herriko zaleak.

sardin jatea eta sagardo dastaketa, denen gozamenerako

janak eta edanak beti du harrera ona euskaldunen artean eta horren adibide da, urtetik urtera, portura gerturatzen den jendetza. bi ekitaldik markatzen dute diferentzia: batetik, gaur 20:30etan antolatu duten sardin jate herrikoia; 23garren edizioa izango da aurtengoa. eta bestetik, igandeko sagardo dastaketa eta lehiaketak. altzueta, oialume-zar, olaizola, eula, akarregi, alberro, elorrabi, iparragirre, artola, itxasburu, otsua-enea eta rufino sagardotegiekin hartuko dute parte eta saria, zapore, kolore, usain... onena duenak eramango du, aurtan ere. eta sabel kontuekin jarraituta, larunbatean goiz-goiz esnatzen direnek baratxuri zopa hartzeko aukera izango dute; eta oraindik lotara joan ez direnentzat ere, ez da plan txarra izango.

kirolak ere badu tarte: pelota partidua eta zaldi dema, aurtengo eskaintza

kirolak ere urtero izan ohi du tarte portuko festetan. aurtan bi ekitaldi antolatu dituzte, biak igandean. eguerdiko 12:00etan, indarrak neurtuko dituzte paul ojuelek eta eñaut esnaolak, auzoko pelotaleku txiki bezain berezian. arratsaldean berriz, aurtengo beste nobedadeak jarriko du saltsa: zaldi demak. tradizioa edo ohitura ari da bihurtzen zaldi dema, eta imanot paollak eta azkonobietak plaza berria izango dute aurtan, deman aritzeko: portu. 19:00etan hasiko da ikuskizuna, 800 kiloko harriarekin.

zazpi astoren gainean auzoari buelta, 62garren urtez

asko dira portuko san joan txiki jaiak berezi eta ezberdin egiten dituzten ekitaldiak; baina guztietatik batekin geratu behar izanez gero, asto karrera izango litzateke aukera hori. 1951garren urtean egin zen aurreneko aldiz, eta ordutik, espektakuluak eta ikusminak bizirik jarraitzen du, urtetik urtera. jendez gainezka izaten dira kale bazterrak, zazpi astoen buelta ikusteko. auzotarrak igotzen dira asto gainera, asko moztortuta, eta helburua, auzoari buelta ahalik eta azkarren ematea, beti ere, astoaren gainean!

abuztuak 23, gaur

10:00, marrazki eta pintura lehiaketa.

11:00-13:30, haurren parkinga: puzgarriak, ohe elastikoak, parke txikia eta olla.

12:00, jaien hasiera suziaren jaurtiketarekin. aldi berean, buruhaundi eta txistularien irteera auzoko txoko guztietan alaitasuna zabalduz.

13:00, auzoko gazteek egindako marrazkien erakusketa

16:00-19:00, haurren parkinga

17:00, haur jolasak: zaku karrerak, aulki jokoa, lokotxak, ura eta irinaren jokoa, etab.

18:00, lorontzi lehiaketa

20:30, xxiii. sardin jate herrikoia.

23:00, kontzertu ikaragarria: dirty eyes, bh roja eta despervicio.

abuztuak 24, bihar

08:00, egunsentia, suziaren jaurtiketarekin.



**Axeri
bila 2013
klik hemen**



**Liburua
erosteko,
klik hemen**



Ibilbide Sarea:
Urruzuno

XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen

08:30, baratxuri zopa goiztiarrentzat
11:30, haur jokoak: zaku karrerak, alki jokoa, lokotxak, ura eta irinaren jokoa, etab.
13:00, zinta lasterketa izugarrizko opariekin
jarraian, tiro karabina txapelketa
16:00, mus txapelketa shangai tabernan
ordu berean, esku lanak
18:00, lxii. asto lasterketa.
19:00, patxin eta potxin pailazoen ikuskizuna
jarraian, denak afaltzera, gauerako indarrak hartzeko
00:00, kalez kale kantarikoekin euskal kantaldi herrikoia
ondoren, dantzaldia laiotzekin

abuztuak 25, igandea

08:00, egunsentia, suzieren jaurtiketarekin.
09:30, diana txistulariekin.
11:00, pelota partidu interesgarria: paul ojuel eñaut esnaolaren kontra.
12:00, meza auzoko hildakoen alde.
12:00, hernaniko bertso eskolako bertsolarien saioa.
12:30, sagardo lehiaketa. itxaso, maialen eta uxue trikitilariak alaituta. sagardotegi partehartzaileak: altzueta, oialume-zar, olaizola, eula, akarregi, alberro, elorrabi, iparragirre, artola, itxasburu, otsua-enea eta rufino.
13:00, xxxix. toka eta bote txapelketa.
14:30, bazkaria.
18:00, ainara dantza eskola eta dilshad dantza taldearen eskutik batuka, funky eta danza del vientre erakustaldia.
19:00, zaldi dema hernaniko imanor paollaren zaldia, eta urnietako azkonobieta baserriko zaldiaren kontra, 800kiloko harriarekin.
jarraian, laket taldearen dantzaldia.
00:00, jaien amaiera laket taldearekin. zezen suzkoa.
azken traka.



Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

da Hernaniko
sagardo berria!

Gehigarria: Gabonak

GEHIGARRIA: GORA
EZKONBERRIAK!

GEHIGARRIA:
AUKERA UGARI
HERNANIN, ETXEA
JANZTEKO -
SAGASTIYA

GEHIGARRIA:
OPORRETARAKO
PREST AL DAUKAZU
IBILGAILUA?

GEHIGARRIA:
ERRUGBIA 1GO
MAILARA

GEHIGARRIA: ZAINDU
PAUSOZ PAUSO



**BESTE
HEDABIDEAK
TOKIKOM**

NOAUA! ASTEKARIA:
Zubietako Santio
jaietako egitaraua

NOAUA! ASTEKARIA:
Ostiralean,
elkarretaratzeta Mikel
Laboa plazan

NOAUA! ASTEKARIA:
Fernando Iturralde,
Zubietako herri
batzarreko alkate: "gu
bat gara, nahiz Usurbilen
edo Donostian izan"
